

Guraso agurgarriak:

2026ko Xanisteban jaiei begiratzen hasiak gara eta, zuen seme alabek pilota txapelketan izen emateko duten aukeraren berri ematera gatoz. Horrela, benjamin mailan (LH3-LH4), haurrak hiru modalitatearen artean aukeratzeko parada izango dute txapelketa **eskuz, xisteraz edo palaz** jokatu ahal izango dutelarik, hirutako **bakar bat** aukeratuz, noski.

Alebin mailan (LH5-LH6), pilotari bakoitzak, berak entrenatzen duen modalitatean jokatu du txapelketa. **Palan binaka, eskuz banaka eta binaka eta xisteraz izenematearen arabera.** Eskola pilotatik kanpo dauden ikasleentzat ere irekia dago txapelketa.

Ondorengo hutsuneak bete, eta **MARTXOAREN 20-rako** entrenatzaileari emanez edota ikastetxera bideratuz (ikastetxeetako eskola kiroleko koordinatzaileei), orri honen bidez, pilotariak txapelketan izen emanda egongo dira:

<b>Izen Abizenak:</b>	
<b>Telefonoa*:</b>	
<b>Ikastetxea:</b>	
<b>Helbide elektronikoa:</b>	
<b>Jaiotze Data:</b>	
<b>*Jakinarazpenak whatsapppe banatuko dira, ez baduzu whatsapprik markatu lauki honetan mesedez</b>	<input type="checkbox"/>

<b>BENJAMINAK</b>	<b>ALEBINAK</b>
<b>Eskuz</b> <input type="checkbox"/>	<b>Palaz</b> <input type="checkbox"/>
<b>Xistera</b> <input type="checkbox"/>	<b>Eskuz banaka</b> <input type="checkbox"/>
<b>Pala</b> <input type="checkbox"/>	<b>Eskuz binaka</b> <input type="checkbox"/>
	<b>Eskuz banaka eta binaka</b> <input type="checkbox"/>
	<b>Xistera</b> <input type="checkbox"/>

Gurasoen sinadura

Gogoratu beharreko ohar garrantzitsua: dakizuen bezela, herriko jaiak abuztuaren hasieran dira. Finalak festetan jokatu dira eta finalera arteko partidak ekainerako bukatzea da antolakuntzaren asmoa. Izena ematen duzuenok, argi eduki, konpromisoa hartuz gero, partidutara azaltzea derrigorrezkoa dela. Ez agertzeak, partidua galdutzat ematea suposatu dezake, beti ezingo bait dira partidak atzeratu. (ahal denean antolakuntzak soluzioa bilatuko du, baina beti aurkitzea ezinezkoa da). Eskuzko partidak ostiraletan jokatu dira orokorrean, 17:30tik aurrera, palakoak eta xisterakoak berriz larunbatean 15:00tik aurrera.

\*Oharra: Edozein modalitatean gutxiengo talderik ateratzen ez bada, kontaktuan jarriko ginateke beste modalitate batean parte hartzeko aukera emanez

Besterik gabe, mila esker zuen arretagatik eta laister arte.

Edozein dudatarako: [epilotaoiartzun@gmail.com](mailto:epilotaoiartzun@gmail.com) 635 37 49 28 (Julen Zelaiaran)

Julen Zelaiaran Orbegozo  
Oiartzungo Eskola Pilotako Koordinatzailea